

# **Genero ikuspegia Bertsolaritzaren mugimendu barruan**

Nere Erkiaga. 2008ko Otsaila  
EHU. Partaidetza eta Komunitate-Garapen Masterra

## **Helburua**

Bertsolaritzaren mugimenduan eta Bertsozale Elkartearen funtzionamenduan generoaren gaia aztertzeak ekarriko dituen aukerak eta arriskuak azalaraztea da gogoeta honen helburua.

Masterreko lehenengo modulu honetarako lana egiteko hainbat gai zeuden aukeran, baina generoaren ikuspuntuak errealitate konkretu eta ezagun baten barruan izan dezaken eraginari buruz gogoeta egitea, oso era xumean izanda ere, gerora egin nahi den gogoeta sakonagoan lagungarri izateko asmoarekin aukeratu da.

## **Sarrera**

1987an sortu zen Bertsozale Elkartea eta bere inguruan bildu zituen gizon eta emakume ugariren elkarlana bertsolaritza geroratzeko ahaleginean. Urteak pasatu ahala emakume gehiago hurbildu dira bertsolaritzaren mugimendura, eta ekarritako aldaketen kontzientzia hartuta, 2006 urtean planteatu zen generoaren gaia Bertsozale Elkarteko barne gogoetan, eta 2007 bukaeran sortu da azkenik, Bertsozale Elkarteko zuzendaritzak eskatuta, generoaren gaia bertsolaritzaren eta elkartearen barruan nola aztertu proposatuko duen taldea. Generoaren perspektiba elkartean eta bertsolaritzan ezartzeak zer suposatuko duen eta zertarako balioko duen argitu beharko du talde horrek, generoaren gaia hain difusoa eta konplexua izanik, gaia bera definitzeko zailtasunak eta gaiaren azterketa egiteko eman beharreko pausuei buruzko dudak sortu baitaitezke.

Bertsolaritza publikoki gizonen mugimendua izan arren, emakume bertsolariak historian zehar beti izan dira eta emakumeak egin du bertsolaritzaren transmisioa

etxeetan. Carmen Larrañagak emakumeek bertsolaritzan izandako papera aztertuaz hainbat lan argitaratu ditu:

*“The understanding of bertsolaritza as a male-dominated public event has led people to believe that this tradition only involves men (...) the whole process of learning and mastering this tradition is linked to domestic life, and, as will shortly become apparent, to women. Little if any effort has been made to explain the absence of women from public bertsolaritza”<sup>1</sup>.*

Emakumeek bertsolaritzaren transmisioan izandako garrantzia Juan Mari Lekuonak ere aipatu zuen<sup>2</sup>. Baina egia esan, Carmen Larrañagaren lana izan ezik, emakumeek bertsolaritzan egindako ekarpenei buruz ezer gutxi dago idatzita:

*“Y se insiste en que después de ella [Kristina Mardaras] transitar la senda del bertsolarismo resulta mucho más fácil para las pocas improvisadoras que le han sucedido. Esto es cierto sólo parcialmente. La historia enseña que antes que Mardarás hubo otras bertsolaris con destreza suficiente para ganar hasta concursos de plaza, sin que la participación de aquéllas forzara un equilibrio entre los dos géneros (varones y mujeres) en el ejercicio del bertsolarismo. Aunque un equilibrio mayor se ha dado quizá en la modalidad escrita, donde la contribución de las mujeres ha sido más regular, en compensación acaso a la dificultad que han tenido de intervenir en público. Repasar estos aspectos olvidados de la historia del bertsolarismo sirven, como veremos, para desmentir alguno de los muchos lugares comunes que lo recorren”<sup>3</sup>.*

Bertso-eskolen sorrerarekin eta euskal gizartean emandako aldaketen ondorioz, bertsolaritzaren eremu publikoetan emakumeen presentzia etengabe handitu da azken 15 urteotan. Oraindik minoria izan arren, gaur egun, lehen ez bezala, bertsolari-emakumeen sorkuntza lanaren kalitatea inork ez du kuestionatzen; gero eta gai-jartzaile, epaile eta bertso-irakasle emakume gehiago daude; gero eta emakume gehiago daude Bertsozale Elkarteko langileen artean, baita sail eta batzordeetan ere; eta bertsolaritzaren inguruan ematen diren boluntario eta antolatzaileen artean ere emakumeak gero eta ugariagoak

---

<sup>1</sup> LARRAÑAGA, Carmen. Ubiquitous but Invisible: The Presence of Women Singers within a Basque Male Tradition IN *Gender and Memory*. Oxford: University Press, 1996. 4. alea, 59 or.

<sup>2</sup> LEKUONA, J.M. Iruñean 1991ko urrian egindako Bertso Astean irakurritako hitzaldian.

<sup>3</sup> LARRAÑAGA, Carmen. Del bertsolarismo silenciado. IN *Jentilbaratz*, 6, 1997, 60 or.

dira. Bertsolaritzaren mundua pixkanaka-pixkanaka feminizatzen ari da eta aldaketa horren eragina ikusi da besteak beste aurtengo Bertso Eguneko saio nagusian: bai bertsolarien hautaketan baita gaien tratamenduan ere nabari izan da generoaren perspektiba kontutan hartu nahi izana.

Gutxiengo izate honek sortutako kezkek eta bizipenak hainbat adierazpen eta elkarrizketetan aurkitu daitezke, eta bizipen hauek beste emakumeekin bateratzeko edo kontrastatzeko nahiak bultzatu zituen 2004an Askizun egindako emakume bertsozaleen topaketak. Urte horretan bertan, emakumeentzat bakarrik egindako bertso-afari esperimentalala egin zen Hernanin, Andragoto tabernan. Ekintza bi hauek oso xumeak izan ziren, inolako oinarri filosofiko-estrategikorik sortzeko asmorik gabe, elkar ezagutzeko eta esperientzi bat izateko helburu nagusiarekin egin ziren, baina ekarpen interesgarriak elkartrukatzeko balio izan zuten.

*“Bertsolaritza ehunka urtetako tradizioa duen jarduna da, belaunaldiz belaunaldi transmititu eta metatutako aberastasuna. Emakumeak oholtzan atzo lurrartu duela esan daiteke, bertsolaritzan betidanik parte hartu badu ere, jendaurrekotasuna gizonezkoen eremua izan baita oraintsu arte. Eta naturala denez, plazako bertsolaritza gizonezkoek eta gizonezkoen eran egituratutako jarduna da. Emakumea sartu da plazan, eta moldatu da plazako joko arauetara: beste bertsolariek ongi hartu dute, diskurtsoak bateratu dituzte eta ikuslea ohitu da bere ahotsera. Plazako egungo joko arauekin irabaztera ere iritsi izan da. Baina topaketan bildutako emakumeen inpresioa da, oholtzara igotakoan euren balio femeninoak direla batez ere behean uzten dituztenak, eta gizonezkoenak markatuz igotzen direla.”<sup>4</sup>*

Baina ekintza hauen sorreran bertan jaso ziren beste edozein alorretan generoaren gaia lantzean ere ematen diren iritzi ezberdintasunak eta dudak:

- zergatik bildu behar ziren emakumeak bakarrik?
- horrelako ekimena ez ote zen hainbatetan eskatutako berdintasunaren aurkako pausu bat?
- zaharren artean bai, baina gazteen artean denok ez gara ba orain berdinak?
- ...

---

<sup>4</sup> EIZAGIRRE, Estitxu. 23 bakarrik dira IN *Berria*, 2005-04-02

Bertso-ekitaldi esperimentalak ere sortu dira emakume eta generoaren gaiaren inguruan. *Emetik bertso-kabareta*, Oihane Perek, Iratxe Ibarrek eta Onintza Enbeitak sortu zuten 2006an. Saio horretan, emakume izatea eta saio arruntetan agertzen ez diren hainbat gai atera dituzte bertsolariek. 2007an, Maialen Lujanbio eta Judith Monterok sortutako *Ornitorrinkus* emanaldiak ere, generoaren gaia era sotil eta inteligentean plazaratzen du.

Azken urte hau izan da agian generoaren gaiari buruzko ekintza ugarien bildu dituen urtea. 2006ko maiatzean “Emakumeok plazara” jardunaldiak egin ziren Durangon; Korrikak emakumea omendu zuen; eta 2007ko uztailean, UEUko ikastaroetan, Bertsolantegian, gizon eta emakume sortzaileak generoak zertan markatu dituen aztertu zen. Bertsolari aldizkariak, bertsolari-emakumeei dedikatu zien 2008ko urteko agenda; eta aurtengo Bertso Egunerako ere, gerora hainbat arrazoiengatik baztertu bazen ere, emakumei omenaldi bat egiteko proposamena landu zen.

Emakumeen gaiaren oinarrian generoaren gaia dago, eta argi dago indefinizio handia duen gaia izan arren, edo horregatik agian, gaurkotasun eta interes handia duen gaia dela. Aztertzeke modukoa.

## **Generoaren ikuspuntua ezartzeko dudak eta arrazoiak**

Emakume kontuak. Generoaren gaia horrela ikusteko eta sinplifikatzeko arriskua dago, bai gizonengandik eta baita emakumeengandik ere, nahiz eta genero ikuspuntua lantzeak guztiontzako aberastasuna eta egitura justuagoak eraikitzea ekarri.

Gizartean gertatzen den bezala bertsolaritzan ere, genero kontuak edo emakumeekin zerikusia duten gaiak aipatzean, kontrako jarrerak ez badira ere, gaiak behar duen tratamendua ulertuko ez duten pertsona asko izango dira: berdintasun legala dago gure gizartean, eta horrek, berdintasun errealean bizi garenaren sentazioa zabaldu du gehiengoaren artean. Bertsolaritzan, beste mugimendu askotan bezala, historian zehar eman den desberdintasun eta injustiziak onartzen dira baina gaur egun berdintasuna lortu denaren sentazioa zabala da. Horregatik, generoaren gaia edo emakumeen inguruko gaiak aipatzean, arrazoirik gabeko eztabaida bat sortu nahi izatea eta biktimizazioa kritikatzeko zaie gaia bultzatu nahi dutenei.

Kritika hau egiteak ez du esan nahi pertsona hauek berdintasunaren kontrako jarrera dutenik, berdintasunaren gaiarekin sentsibilizatuta daudenen artean ere eman baitaiteke, emakume zein gizonezko izan, eta sarritan, emakume gaztetxoenen artean ere emango da, emakume helduagoen artean somatzen den bezala, desberdintasun sotilen kontzientzia urteekin hartzen baita sarritan.

Generoaren gaia azaltzean biktima bezala agertzearen edo biktima bezala ikusiak izatearen kezka eta desadostasuna agertzen dute askok, generoaren gaia esperientzi injustuak bizi izanarekin bakarrik lotzean. Ikusmolde honen arabera, esperientzi injustu agerikoak bizi ez izana genero berdintasunaren demostrazioa bezala hartzen da.

Berdintasun legala lortu izanak generoaren gaia oso era sotilean somatzea dakar. Ez da nahikoa gizonezkoak eta emakumezkoak berdinak garela sinestea eta ados egotea; generoaren tratamendua landu beharra eskatzen du, eta sarritan falta dugun kontzientzi maila handia izatea ere eskatzen du, normalak izan ez arren normaltzat jotzen ditugun egoerak identifikatu ahal izateko. Euskararekin gertatzen den bezala, sensibilizatuta egotea ez da nahikoa sarritan euskararen kalterako gertatzen diren egoerak identifikatu ahal izateko: gehiengo zabala euskalduna den herrian igandez suertatzen diren funeralak gaztelaniazko mezarekin batera egiten diren arren, herritarren artean ez du inolako kezka edo erreakziorik sortzen<sup>5</sup>. Ez da nahikoa euskaraz bizi izatea, euskararen gaia ondo landua eta kontzientzia maila altua behar dira egoera okerrak identifikatu ahal izateko.

Generoaren gaia azalarazten denean, emetasunari egotzitako baloreak goraiatzeko arriskua ere badago: agresibitate-eza, taldea zaintzeko gaitasunak, enpatia, suabitatea, amatasuna, apaltasuna, ... Ezaugarri hauek emakume guztien ezaugarri berezkoak diren ala gizarte patriarkalaren eraginez emakumeari ezarri zaizkion ere eztabaidatu daiteke, baina genero ikuspegia ezartzea ezin da sinplifikazio horretara mugatu. Gizonezkoz bakarrik osatutako gizarte estruktura tradizionalak etorkizunean emakume eta

---

<sup>5</sup> Lekeition, herritarren gehiengoa euskalduna izan arren (%90 inguru), abade gabeziagatik igandeetako funeralak 12etako gaztelaniazko mezarekin batera egitea erabaki zen. Ordu honetako meza tradizioz gaztelaniaz egin da eta aldaketa hau eman arren ez zen beste proposamenik egin. Harrigarriena, ez da abadea honetaz konturatu ez izana, elizakoak diren herritar euskaldunengandik erreakziorik egon ez izana ere adierazgarria da.

gizonezkoek osatuta egoteak, orain arte emakumei egotzitako lan eta arduren banaketa erreala emateak, eta gizonezko eta emakumezkoen artean benetako berdintasunezko erlazioak ziurtatzeak ekarriko duen kalitatea eta aberastasuna izango da denontzako benetako irabazia.

Aipatutako arazoez gain, generoaren gaiak badu gainera berezko konplikazioa: Nancy Fraserrek azaltzen duen bezala, generoaren gaiak bere barnean borroka mota bi ditu, berdintasunaren aldeko borroka (birbanaketa borroka) eta diferentzien onarpenen aldeko borroka (errekonozimendu borroka)<sup>6</sup>.

*(...) “that developing a critical theory of recognition, one that identifies and defends only those version of the cultural politics of difference that can be coherently combined with the social politics of equality.*

*In formulating this project, I assume that justice today requieres both redistribution and recognition.”*

Gizonezkoen eta emakumezkoen artean ematen diren ezberdintasun sozio-ekonomikoek berdintasunaren borroka eskatzen dute, eta ondorioz, lanaren banaketa sexista ukatu eta ezberdintasun hauek deuseztatzea; baina era berean, gizaldietan eman den androzentrismoak emakumeek sofritu duten bazterketa eta ahaztura ekarri du eta errekonozimenduzko borroka beharrezkoa da, emakumezkoen ezaugarrien birbaloratzea eta onarpena eman ahal izateko.

Generoaren gaiaren inguruan hartzen diren neurriak ere ezberdinak dira, eta lortu nahi diren helburuen arabera aztertu beharrekoak<sup>7</sup>:

1. Akzio positiborako neurriak:

Emakumeen baldintzak berdinak ez direla onartuta, aukera berdintasuna ziurtatzeko beraien alde hartutako neurriak dira. Mota honetako neurriak helburu zehatzak lortzeko dira, ez epe luzera begirako prozesuetarako neurriak. Adibidez, emakumerik ez dagoen alorretan, edo beraien parte hartzea bultzatu

---

<sup>6</sup> FRASER, Nancy. *Justice Interruptus: Critical Reflection on the “Postsocialist” Condition*. London: Routledge, 1997.

<sup>7</sup> Dominique Saillardek emandako klasea: 2007-12-17. *La Democracia Participativa desde la perspectiva de género*

nahi den alorretan, erdiak emakumeak diren talde-mixtoak osatzeko erabakia izango litzateke neurri bat.

2. Transbertsalitatea:

Generoaren gaia beste gai edo eremuetan zeharka eragiten duenez, alor guztietan kontutan hartu behar dela esan nahi du. Elkartearen politikan adibidez, genero ikuspuntua sail guztietan aztertzea izango litzateke: transmisioan, komunikazioan, sustapenean eta ikerkuntzan.

3. Mainstreaming:

Generoaren gaia erakunde edo elkartearen “korrante nagusian” txertatzea esan nahi du, erabaki gorenak eta oinarritzko politikak diseinatzen dituen talde edo batzordeak genero ikuspuntua bereganatzea eta gai estrategiko bihurtzea. Bertsozale Elkartean adibidez, generoaren gaia aztertuko duen taldea zuzendaritza batzordearen azpian egotea litzateke.

4. Enpoderamendua:

Emakumeen heziketan, tradizionalki jarritako mugak apurtu eta beraiek duten gaitasun guztietaz jabetzea litzateke.

## **Genero ikuspuntua ikertzeko galderen transbertsalitatea:**

Bertsozale Elkartearen barruan sortu daitezken galderak:

### **Langile profesionalen artean.**

- Berdin espero al dugu emakume edo gizonezko lankidearengandik? Familia duen gizonezko lankidearengandik? Eta familia duen emakumezkoarengandik?
- Nola gaude banatuta? Botere lanpostuetara aurkezteko animurik ba al dute emakumeek? Eta, ikusten ote dira emakumeak botere lanpostuetan lan egiteko prest?
- Lan banaketa berdintasunez eginda, bilera eta “extren” ordutegiak egokiak ote dira?
- Berdin komunikatzen dira? Emakume hutsez osatutako lan-taldeak konfliktiboagoak al dira?

### **Batzorde eta taldeen eraketan eta bileren formatuan**

- Berdin hurbiltzen al dira emakumeak eta gizonezkoak batzorde eta bileretara?

- Emakumeek ez ote dute behar birritan edo gehiagotan entzun behar beraien ekarpena baliotsua dela benetan ere hala dela ziurtatzeko? Inseguritate horrek ze motatako eragin sortzen ote ditu?
- Egun erabiltzen diren bileretako dinamikek isilik gelditzen direnek hitz egitea bultzatzen ote dute?
- Zein da lidergoen perfila? Emakumezko lidergoa berdina onartzen ote da?
- Batzorde eta bileretako ordutegiak denentzako aproposak al dira?

### **Transmisio sailean**

- Bertsoetan berdina ikasten al dute neskek zein mutilek? Beharizan berdina al dituzte? Berdin tratatu behar ote dira?
- Bolondresak eskatu eta neskek isilik gelditzen ote dira?<sup>8</sup> Neskek parte hartzeko bultzada berezirik behar ote dute? Zein motatakoa?
- Neska eta mutilen kopuru berdina al dago irakaskuntzan? Eta bertso-eskoletan? Eta irakasleen artean?
- Irakasle emakumeak eta gizonezkoak berdina jokatzen dute? Eta erreakzio berdina sortzen al dituzte? Zeintzuk dira sortzen diren arazoak?
- Bertsoaren irakasteko erabilitako materialetan neskentzako erreferentzia argirik ba ote dago?
- Bat-batekotasunaren fenomenoak berdina ematen al da neska eta mutilengan? Nola eragiten die neskei? Noiz uzten dute orokorrean neskek bertsoa? Eta zergatik? Eta mutilek? Zergatik? Neskek mutilen aldean bertsoetako mundua gehiago abandonatzen dute? Zergatik?
- Emakume askok bere itxurarekin duen konplexuak eta gutxietako joerak ez du gehiegi laguntzen jendaurrera irtetzen. Egia al da emakume ikasleak gizonezkoak baino perfekzionistagoak direla?<sup>9</sup>

### **Sustapen sailean**

- Bertso-saioak antolatzean emakumeen presentzia zenbatetan egiten ote da behartuta?
- Epailen artean emakume eta gizonezko kopuru berdina al dago?
- Epaitzeko irizpideetan emakume izatea edo gizonezko izateak eraginik ba ote du? Berdin bizi du emakume epaileak gai batzuei buruzko iritzia? Eta gizonezkoak?

---

<sup>8</sup> URRETABIZKAIA, Arantxa. Estitxu Arozena: "Emakume izateko era asko dago, ez bakarra". IN *Zabalik*, 2001-07-28.

<sup>9</sup> EIZAGIRRE, Estitxu. 23 bakarrik dira IN *Berria*, 2005-04-02



- Gizonezkoen eta emakumezkoen komunikatzeko ezberdintasunak kontutan hartu al dira epai irizpideetan?
- Gai-jartzaileen artean zenbat emakumezko daude? Emakume eta gizonezko kopuru ezberdintasunak gaien sorkuntzan eraginik ba ote du?
- Gaien tratamendua eta formulazioan eraginik ba al du kantatu behar duena emakumea izateak? Zertan?
- Zergatik dira gai batzuk mingarriak emakume askorentzat? Zerek eragiten ote du hori?

### **Ikerkuntza sailean**

- Bertsolaritzaren historia berrikusi al da emakumearen lekutik?
- Emakume bertsolarien komunikazio estiloen, estetikaren eta sorkuntza prozesuaren ezberdintasunak aztertu dira?
- Zeri buruz kantatu dute emakumeek?
- Ba al dago emakumezkoek garatutako gorputz espresiorik?

### **Komunikazio sailean**

- Komunikatzeko baliabide berdinak erabiltzen al ditugu emakumeak eta gizonezkoak? Egoera berdinen aurrean, emakumezkoak eta gizonezkoak komunikatzeko gaitasun bera dute?
- Zeintzuk parte hartze modu dira gizonezkoek gehiago erabiltzen dituztenak? Eta emakumeek gehien erabiltzen dituztenak?
- Eztabaida talde eta foroetan emakumeek nola parte hartzen ote dute, gizonezkoen beste ala gutxiago? Hizkuntza estiloa berdina dute?

Bertsolaritzaren barruan ere hainbat alorretan generoari lotutako hainbat galdera egin daitezke. Bertsolaritzari buruz egindako elkarrizketa eta hitzaldietatik jasotako galderak dira ondorengo hauek:

### **Estetika**

- Emakumea izan arren ezaugarri maskulinoak erakusten al dira taula gainean?<sup>10</sup>
- Bertsolaria den emakumeak arrakasta handiagoa ote du edukiz zein formaz gizonezko baten legez kantatuta?<sup>11</sup>
- Gona motxak lehenagoko bezalako eragina ote du publikoarengan?<sup>12</sup>

<sup>10</sup> EIZAGIRRE, Estitxu. 23 bakarrik dira IN *Berria*, 2005-04-02

<sup>11</sup> AIZPURUA, Karlos. Andre txarraren bentaja .IN *Berria*, 2004-07-06.

## Bertso-gaiak

- Emakumeei tradizionalki egotzitako zeregin pasiboa islatzen al dute gaiak?<sup>13</sup>
- Emakumeek bertotan tratatzen dituzten gaiak gizonezkoek landutakoengandik ezberdintzen al dira?<sup>14</sup>
- Gizonezkoek jarritako egoerak emakumeei jarritakoak baino garatuagoak ote daude? Emakumeei emakumearen paper orokorra ematen al zaio sarritan?<sup>15</sup>
- Masturbatzen diren emakumeak, hilerokoa, ama sufritua, golfo alferra, .. ba ote dago birplanteatze beharra duen gairik?<sup>16</sup>

## Sorkuntza prozesua

- Bertsolaritzaren taula gainean emakumeen errepresentazio-abanikorik ez egoteak emakume guztien ordezkari kantatzera derrigortzen ote du emakume-bertsolaria?<sup>17</sup>
- Gizonezkoen baloreak bere egiten ote ditu emakume bertsolariek?<sup>18</sup> Berdintasuna ala asimilazioa gertatzen ari da?<sup>19</sup>
- Nolako bertsogintza eskatzen die emakumeei gorputzak?<sup>20</sup>
- Emakume ereduak sortu ote dira?<sup>21</sup>
- Emakumeak plazaratzean gizonezkoek autozentsuratzen ikasi behar izan ote dute? Aberasgarria ote da hori?<sup>22</sup>

## Harremanak

- Neska izatea bentaja al da?<sup>23</sup>
- Sobera al dago garai bateko diskriminazio positiboa?<sup>24</sup>
- Diskriminazio positiboa saioetara deitzean bai baina emakumeen bertsogintza baloratzeko orduan ez da aplikatu. Horrela ote da oraindik ere?<sup>25</sup>

---

<sup>12</sup> URRETABIZKAIA, Arantxa. Estitxu Arozena: "Emakume izateko era asko dago, ez bakarra". IN *Zabalik*, 2001-07-28.

<sup>13</sup> IRAOLA, Maria Jesus. No zen to! IN *Diario vasco*, 1999-04-27.

<sup>14</sup> ZABALA, Juan Luis. Carmen Larrañaga: "Itomena sortzen digu beti gizonezko inguratuta egoteak". IN *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-08-10.

<sup>15</sup> LUJANBIO, Maialen. *Generoak zertan markatu ditu gizonezko eta emakumezko sortzaileak?* Hitzaldia. Orereta, 2007-05-11.

<sup>16</sup> EIZAGIRRE, Estitxu. 23 bakarrik dira IN *Berria*, 2005-04-02

<sup>17</sup> LUJANBIO, Maialen. *Generoak zertan markatu ditu gizonezko eta emakumezko sortzaileak?* Hitzaldia. Orereta, 2007-05-11.

<sup>18</sup> URRETABIZKAIA, Arantxa. Estitxu Arozena: "Emakume izateko era asko dago, ez bakarra". IN *Zabalik*, 2001-07-28.

<sup>19</sup> EIZAGIRRE, Estitxu. 23 bakarrik dira IN *Berria*, 2005-04-02

<sup>20</sup> Idem

<sup>21</sup> Idem

<sup>22</sup> ABRIL, Jon. Bertsoa Egañaren begitik IN *Berria*, 2006-03-18.

<sup>23</sup> ORTIZ, Marta. ..Eta bertsolaritzan, berdintasunik bai? IN *Deia*, 1999-03-12.

<sup>24</sup> ENBEITA, Zihara. Mende amaierara bidean: bertsolaritzaren indarra IN *Gara*, 2000-12-23.

<sup>25</sup> LUJANBIO, Maialen. *Generoak zertan markatu ditu gizonezko eta emakumezko sortzaileak?* Hitzaldia. Orereta, 2007-05-11.

- Gizonezkoak emakumeekin kantatzen dutenean hiru tipoetako sailkapenean sartzen ote dira?<sup>26</sup>
- Bertso-eskoletatik plazetara salto egite horretan mutil baino neska gehiago atzean gelditzea zergatik ote da?<sup>27</sup>

### **Antolakuntza**

- Zenbatetan hautatzen dira emakumeak taula osatzeko, sinbolikoki?<sup>7</sup>
- Emakumearen egunaren inguruan emakume hutsez osatutako bertso-saioak onuragarriak al dira?<sup>28</sup>
- Emakume bertsolariak existitzen diren kopuruan agertzen ote dira naturalki plazan ala Emakumeen Eguna eta horrelakoak izan behar dira errepresentazioa lortzeko?<sup>29</sup>

### **Publikoarekin komunikazioa**

- Aldatzen ote da bertso-saioaren erritmoa eta edukia taularatutako bertsolarien generoaren arabera?
- Publikoaren gehiengoa zer da emakumezkoa ala gizonezkoa? Publikoaren osaketak zenbat markatzen du saio bateko erritmo eta edukia?
- Ahotsaren indarrak eraginik ba ote du komunikazioan?<sup>30</sup>
- Publikoak zer espero du taula gaineko emakume bertsolariarengandik?<sup>31</sup>
- Neska hutsek publikoaren aurrean kantatzen dutenean errekonozimendu gutxiagoren perzepzioa ote dute?<sup>32</sup>
- Pena gehiago somatzen al du publikoak ezinean dagoen emakume baten aurrean?<sup>33</sup>

---

<sup>26</sup> URRETABIZKAIA, Arantxa. Estitxu Arozena: "Emakume izateko era asko dago, ez bakarra". IN *Zabalik*, 2001-07-28.

<sup>27</sup> ABRIL, Jon. Bertsoa Egañaren begitik IN *Berria*, 2006-03-18.

<sup>28</sup> MUJIK, Amagoia. Neskak izateko nahiko ondo egiten dute bertsotan IN *Gara*, 2003-06-02.

<sup>29</sup> OXANDABARATZ, Menane. Non daude bertsolari emazteak? IN *Euskaldunon egunkaria*, 2003-02-09.

<sup>30</sup> URRETABIZKAIA, Arantxa. Mujeres bertsolaris IN *Radio Euskadi*, 2008-02-01.

<sup>31</sup> LUJANBIO, Maialen. *Generoak zertan markatu ditu gizonezko eta emakumezko sortzaileak?* Hitzaldia. Orereta, 2007-05-11.

<sup>32</sup> Idem

<sup>33</sup> Idem

## Genero ikuspuntuaren azterketa parte hartzailea

Generoaren ikuspuntuaren azterketa orain arte elkarte gutxitan eman da<sup>34</sup>:

*“Diversos estudios sobre el tercer sector han puesto de relieve que las juntas directivas y los puestos de dirección de organizaciones mixtas siguen siendo, como regla general, mucho más masculinizados que su personal administrativo o voluntario (véase Muruialday otras, 2000, para el sector de las ONGD en el País Vasco). Otros estudios han analizado la actitud ambivalente que muchas mujeres exhiben hacia el ejercicio del poder, bien porque no quieren participar en estructuras que consideran opresivas, bien porque han interiorizado la delegación a los hombres de las responsabilidades públicas”*

Bertsolaritzaren eta Bertsozale Elkartearen berezitasunak kontutan hartu beharko dira genero perspektiba aztertzeko, orokorrean eta baita espezifikoki bertsolaritzarekin lotutako generoaren aspektuak ikertu dituzten lanak bildu beharko dira, ahal denik eta informazio gehien biltzeko. Adibidez, emakume eta gizonezkoen arteko komunikazio gaitasun ezberdintasunei buruz ikerketa ugari daude. Carli eta Bukatkoren<sup>35</sup> arabera, gizonek eta emakumeek erabiltzen dituzten komunikatzeko erak ezberdinak dira:

*“Although the literature is quite extensive and the findings are somewhat mixed, when gender differences are reported, they generally reveal more competition, assertiveness, and authority by male speakers and more collaboration, agreeableness, and warmth by females”*

*“Essentially, women are relatively more other-oriented. this is further reflected in women’s greater willingness to share their positive emotions or disclose personal information than men’s”*

Baina aurrean duten taldearen eraketa eta botere harremanen arabera egokitu eta aldatzeko gaitasuna dute biek:

*“The results on mixed-sex interactions suggests that both men and women may have multiple agendas in social interactions; both sexes may be concerned, to varying degrees, with dominance and self-assertion, on the one hand, and warmth and collaboration, on the other hand. In fact these may be two relatively*

---

<sup>34</sup> ESPIAU, Mireia; SAILLARD, Dominique; AJANGUIZ, Rafael. Género en la participación: Un camino por recorrer IN *Cuadernos Bakeaz*, 67 zkia, 2005 otsaila. 11. or.

<sup>35</sup> CARLI, Linda; BUKATKO, Danuta. Gender, Communication, and Social Influence: A Developmental Perspective IN *The Developmental Social Psychology of Gender*. New Jersey, 2000.

*independent dimensions of communication style. Certainly, both sexes are capable of using communication styles associated with each dimension”*

Baina emakumeen eragin soziala ezberdina da, eta taldeen eraketan kontutan hartzeko modukoa:

*“Propp (1995) reported that when men and women interact in the same group, information introduced by men was six times more likely to influence the group than the same information introduced by women; in fact, information introduced by women was usually ignored”*

*“Although speaking in a confident and self-promoting manner can benefit men, women receive greater recognition when they are modest than when they are self-promoting”*

Emakume artisten gorputzen espresioei buruz egindako azterketan bertsolari emakumeen gorputz ezaugarriak ere kontutan hartu ditu Mari Luz Estebanek<sup>36</sup>:

*“Mi argumento central respecto a este itinerario y que considero representativo de otras mujeres bersolaris, es que el cuerpo ha tenido un papel central en la presencia y legitimación de estas mujeres en un mundo de hombres”*

*“La importancia de la fuerza física en la cultura vasca, así como su proyección en la desigualdad entre hombres y mujeres, ya ha sido analizada previamente por diversas autoras (...). En el caso del bertsolarismo, no se trataría de una expresión de una fuerza física más propia de ámbitos mayoritariamente masculinos, como son, por ejemplo, los deportes vascos, sino más bien de la demostración de la capacidad de resistencia y aguante, del “saber estar”, que se correspondería más con el término sendotasuna”*

Baina generoaren gaiari buruzko ikerketaren bilketa egitea baino garrantzitsuagoa izango da Bertsozale Elkartean genero perspektiba aztertzeko modua transbertsala eta parte hartzailea diseinatzea, eragile, sortzaile, bolondres, langile, irakasle, antolatzaile eta abarren iritziak eta gogoetak jaso eta bilduko dituen prozesua, taldeko ezagutza sortuz. Generoaren gaiaren inguruan dagoen amildegia deuseztatzeko izan beharko da.<sup>37</sup>

---

<sup>36</sup> ESTEBAN, Mari Luz. *Antropología del cuerpo: Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Barcelona: Bellaterra, 2004.

<sup>37</sup> GOROSTIZU, Ainara. Bertsolarien arteko amildegia IN *Berria*, 2007-07-05

Honelako prozesu parte hartzaile batek heziketa prozesua ahalbideratuko du, parte hartu ahala guztiak gaiari buruzko hausnarketa zabaldu eta ikasten joango baitira. Diseinu egokiena garatzeko prozesu parte hartzaileetan esperientzia duten profesionalen iritzia jasotzea ere ideia ona izango da.

## Ondorioak

Generoaren gaiaren tratamendua ez da atzera begirako azterketa eta kritika hutsa, aurrera begirako eraikitze prozesu bat baizik.

*Todo sujeto se afirma concretamente a través de los proyectos como una transcendencia, sólo hace culminar su libertad cuando la supera constantemente hacia otras libertades; no hay más justificación de la existencia presente que su expansión hacia el futuro indefinidamente abierto. Cada vez que la transcendencia vuelve a caer en la inmanencia, se da una degradación de la existencia en un “en sí”, de la libertad en facticidad; esta caída es una falta moral si el sujeto la consiente; si se le inflige, se transforma en una frustración y una opresión; en ambos casos, se trata de un mal absoluto.”*

BEAUVOIR, Simone de. “El segundo sexo”. Valencia: Ediciones cátedra, 2005. 63 or.

Teoria feministek egin duten ekarpen handi bat generoaren dekonstrukzioa da. Feminismo dekonstruktibistaren arabera, gizarte androzentrismoak sortutako genero dikotomia apurtu eta identitate osoko pertsona bihurtuko gara, eskenatoki berri eta justuagoa eraikiz. Nancy Fraserren arabera, ekonomian berbanaketarekin batera kulturaren dekonstrukzioa eman behar da<sup>38</sup>.

---

<sup>38</sup> FRASER, Nancy. *Justice Interruptus: Critical Reflection on the “Postsocialist” Condition*. London: Routledge, 1997. 31 or. :

*“For both gender and “race”, the scenario that best finesses the redistribution-recognition dilemma is socialism in the economy plus deconstruction in the culture. But for this scenario to be psychologically and politically feasible requires that all people be weaned from their attachment to current cultural constructions of their interests and identities”*

Generoaren gaia aztertzeak segurutik ez du Fraserren eskenatoki ideala eraikiko, baina Bertsozale Elkartean eta bertsolaritzan dabilzanek bide horretan pausu garrantzitsu bat emango dute, beraien burua hobeto ezagutzea ekarriko du, tradizionalki pribatuak izan diren gaiak publikoan duten eragina aztertzea, faltsuan eraikitako mitoak, positiboak zein negatiboak, deuseztatzea, eta besteak beste, genero kontuak ez direla emakume kontuak bakarrik ulertzea. Taldean hobeto eratzeko, elkar ulertzeko eta *ikusten ez diren mugak*<sup>39</sup> ezabatzeko gaitasun handiagoa izango dugu guztiok.

Eta bukatzeko, Benjamin R. Barberren zita<sup>40</sup> ...

*“El autor del lenguaje, el pensamiento, la filosofía, la ciencia el arte, además de la ley, los pactos, los derechos individuales, la autoridad la libertad no es el hombre sino los hombres” (Barber)*

.... genero ikuspegia aplikatuta:

*“El autor del lenguaje, el pensamiento, la filosofía, la ciencia el arte, además de la ley, los pactos, los derechos individuales, la autoridad la libertad no es el hombre sino los hombres y las mujeres” (Barber)*

---

<sup>39</sup> Estitxu Arozenaren bertsoa: *Ikusten ez diren mugak/ bihurtu dira arriskutsuen*

<sup>40</sup> BARBER, Benjamin R. *Strong Democracy*, 1984.